

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3585

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 23koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Refractarios Kelsen SA enpresak Adunako udalerrian egindako ingurumen-baimen bateratuaren eskaera jendaurrean jartzen duena.

1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko Legearen testuategina onartu zuen. Legearen xedea atmosferaren, uraren eta zorua-
ren poluzioa ekiditea da, eta hori posiblea ez denean, murriztu eta kontrolatzea. Horrela, poluzioa-
ren prebentzioari eta kontrol integratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean
babesteko.

Aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz, instalazioen erai-
kuntzak, muntaiak, ustiak edo lekualdaketak, eta funtsezko aldaketak, ingurumen-baimen
bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumen-baimen
bateratuaren helburua hau da: araua bete behar duten instalazioek euren xedea bete dezaten
beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, baimena emateko parte hartu behar duten herri-admi-
nistrazio ezberdinen arteko koordinazioa bermatzen duen prozedura baten bitartez, betiere
partikularren kargak eta izapideak arintzearen.

Refractarios Kelsen SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari ingu-
rumen-baimen bateratua eskatu baitio, aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak
xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak araututakoari jarraituz, ingurumen-bai-
men bateratuaren eskaera jendaurrean jarri beharra dago, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren
esparruan.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, kutsadu-
raren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko legearen testuategina onartzen duen
1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Administrazio
Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta oro har eta bere-
ziki aplikagarri den bestelako legedia ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Adunako udalerrian Refractarios Kelsen SA enpresak egindako ingurumen-baimen
bateratuaren eskaera jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian
eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun baliodu-
neko epean. Epe horretan, bidezko iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.— Alegazioak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebi-
zitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1,
Vitoria-Gasteiz).

3. artikulua.— Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, eskaera Eusko Jaurlaritzako Ingu-
rumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan

egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz); baita Gipuzkoako Lurralde Zerbitzuan ere (Intxaurrondo kalea 70, Donostia).

Era berean, aipatu dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako eskaera Adu-nako Udalera bidaliko da, jendaurrean erakutsi behar den aldian ikusgai izan dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 23a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.